

Txalupa zaharra, ur egarri

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2011



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Txalupa zaharra, ur egarri

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia 24. ipuin lehiaketa

2011

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Asier Arakistain Alberdi (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Amnistiaren aldeko kamiseta soinean nuela ohartu nintzen guardia zibilak pasaporte eskatu zidan unean. Madarikatu nuen neure burua. Etxetik irteterako ispiluaren aurrean ordu erdia pasa eta halako detailtxoaz ohartu ez izanak sutu ninduen. Baina aldi berean ez nintzen harritu. Artilezko alfonbra batean jostorraz bat aurki nezake, baina aldi berean alfonbraren marrazkiez galdetu eta erantzunik gabe geldituko nintzateke. Halakoa nintzen, itsu hutsa. Hala ere, aireportuan, amorraren gaindi bestelako sentipen bat hasia zen nagusitzen. Itolarriak erasan ninduen. Berezko dudak bisaia zurbila, ilargi betearen antz handiegia ari zen hartzen. Bertan oka hasteko ez nuen asko falta. Ikaraturik nengoen. Nire burua baretu asmoz, begiak mostradoreaz harat jaso nituenean, hara non ikusi nuen Ane, metalezko detektagailuaren bestaldean, bere hortz ezin zuriagoak, irriño batez, maleziatsu erakutsiz.

Unibertitatean ezagutu genuen elkar. Hasieran neska txotxolotzat nuen. Klasera makillatua joaten ziren horietakoa. Baina laster batean ohartu nintzen zerbait berezia bazuela. Bestelakoa zela. Ikasketetan ona zen, oso ona, eta bere eskuzabaltasunak lan bat baino gehiago aurrera ateratzen lagundu zidan. Baina batez ere, ikasleen batzar batean hitz egin zuenean ohartu nintzen zerbait berezia bazuela. Merezki zezakeen laguna izan zitekeela. Gogorra zen bere hitzetan, baina aldi berean goxoa bere ahotsean. Halako segurtasunez mugitzen zen jendartean, non bere hitzak entzun gabe ere bereganatu egiten zintuela.

Laster egin ginen lagun, baita hurrengo ikasturtean pisukide egin ere. Fakultate berdinean ari ginen ikasten, eta aldi berean, asteburuetan, taberna berean lan egiten genuen. Ohartu gabe beti elkarren ondoan ginen. Onerako zein txarrerako.

—Puede continuar.

Mexiko D.F.n lur hartu genuenean, izugarritzko bero zapak eman zigun lehen ongietorria. Aireportuaren atarian aurkitzen ziren hamaika zamaketarik, aldiz, bigarrena. Gure bi motxilak garraiatzeko inoren laguntza behar ez genuenez, zuzenean abiatu ginen turisten postaletan horren ohiko bihurtu diren taxi berde baterantz.

—Buenos días, al restaurante Txalupa por favor —ilusio handiz agindu nion taxistari.

—Ustedes son gallegos, verdá? —Ironia apur bat sumatu nion taxistari autoa martxan jartzen zuela.

—Gallegos no, VASCOS!! —Lehor erantzun nion. Nola zitekeen, lehen hitzak mexikar batekin eta jada irainduak.

Taxistari berriz nire erantzunak grazia egingo zion barre algarako hasi baitzen.

—Carajo! D.F. es muy grande, no pueden apuntalar un poquiquitito la dirección.

Aneren begiak bilatu nituen laguntza eske, eta hara non bidaiari bigarren aldiz, bere hortz zuriak erakusten zizkidan bere irriño maleziatsuz. Astiro, niretzat oso astiro, patrikatik papertxo bat atera eta helbidea luzatu zion taxistari.

—Aristóteles 239, Polanco, Miguel Hidalgo, 11550 Ciudad de México.

lazko abenduan, Mexikotik sei euskal herritar estraditatu ondoren sortu zitzaigun ideia. Egia aitor, Aneri sortu zitzaion ideia niri baino lehen. Taberna itxita, hondarrak garbitzen ari ginela, bere aitaren koadrilako bat Mexikon errefuxiatua zegoela aipatu zidan, eta ikusiak ikusirik, bisitatzera joango gintzaizkiola berandu baino lehen. Aurrez ezagutzen ote zuen galdetu nionean, ezetz erantzun zidan eta ea zer axola zuen horrek gaineratu, azken finean, iheslari batek, dena delakoa izanik, ezagun edo ezezagun, elkartasun keinu bat merezi zuela eta keinu hori zuzenean helarazteko aukera suertatuz gero, zalantzarik gabe helarazi behar zitzaioela. Aho bete hortz gelditu nintzen, zer esan jakin gabe. Eta hala, neguko gau hartan hartu genuen erabakia. Udaran zer bait berezia egitekoa. Elkartasuna adieraztekoa. Urrunean. Mexikon.

Aireportutik Txalupa jatetxerako bidea zoragarria izan zen, ez ikusgarria zelako, zorabiatzeko ez genuelako asko falta izan baizik. Itzala egiteko besterik ez zeuden hango trafikoa seinaleak, eta semaforoak berriz, hemengoan berdin berdinak izan arren bazuten akats txiki bat, argindarrak ez zutela, alajaina! Eta gidariak, ene! mexikar gidariak, zalantzarik gabe gure herriko haurrak autotxoketan zibilizatuago ibiltzen dira. Hala ere, eta ortziko izar guztiak lerrokatuak zirelako ziurrenik, onik iritsi ginen Txalupara.

Jatetxeak izena bezala, izana ere euskalduna izango zuelako ustea genuen, eta egia esanda hala zen, Euskal Herriko edozein herritan aurki genezake dekorazio berdineko jatetxe bat. Eskuare bat horman zintzilik uztarri baten aldamenean, Euskal Herriko mapa horitu bat, Picassoren Gernika koadroa eta lauburuak nonahi. Gauza batek salatzen zuen, ordea, Mexikon geundela. Bezeroak zein zerbitzariak beltzaranak zirela, hots, mexikarrak.

—Desean almorzar?

Dekorazio harekin erabat tokiz kanpo zegoen gizon gorbatadun batek eten zituen gure gogoetak. Izugarriko gizon puska batek. Bi metro luze eta ehun kiloak ederki paseak izango zituen mamutzar batek. Jatetxe bateko harreran lan egiteko pertsona berezia. Jendea erakarri baino uxatu egingo zituen, beldurra emateko basapiztia baitzen.

Bertan ez genuela bazkaldu behar erantzun zion lehor Anek, begiradaz jangela arakatzen zuela. Morroskoak muturra nola okertzen zuen ikusirik eta bere jarreraz agian lotsatuta, gure bidaiaren berri zehatza eman zion Anek. Nola Mexikora Beltza ezizeneko euskaldun batekin topo egitera joanak ginen,

eta bide batez haren berririk ba ote zuen galdetu zion axolagabeki. Niri ez zitzaidan egoki iruditu horrenbeste esplikazio, horrelako bidaia batek diskrezioa behar lukeelako oinarri, eta auskalo, agian gizon hura polizia izan zitekeen, edo zerbait okerragoa, eta orduan bai gureak egingo zuela. Hala ere ez nintzen Aneri ezer aurpegiratzeko gai izan. Lasai nabaritzen zitzaion, lasai eta seguru. Beti bezala. Ni berriz kaka dariola nengoen. Gizona bi pauso atzeratu, guri bizkarra eman eta mugikorra atera zuen. Norbaitekin bi segundoz hitz egin ondoren, guregana zuzendu zen.

—A las ocho os recogerá en el centro vasco. Sean puntuales.

Esaldia bukatu baino lehen kaleko bidea hartu genuen, baina pausoa eman orduko ohartu ginen euskal etxea non zegoen arrastorik ez genuela. Emandako pausoa desegin eta berriz ginen mamutzarraren aurrean. Ezer esateko betarik gabe, atzamarrak igurtzi zizkigun muturren aurrean. Anek, ukalondoaz, gibelean kolpetxo bat jo zidan, dirua eskatzen ari zitzaigula esanaz. Tentela banaiz, baina neronek ere ulertu nuen zer nahi zuen kabroi horrek. Patrikatik diru zorroa atera eta 20 pesoko billetea luzatu nion.

—Motel, 2 euro ere ez dizkiok eman. —Hara gure Ane eskuzabala.

Diru zorrotik 200 pesokoa atera eta gogoz kontra luzatu nion morroiari. Uste baino azkarrago ari ginen *mordida* ezagutzen.

—2 cuerdas más abajo.

Kalean behera eginez, gorrotatzen hasia nintzen irribarrea eskaini zidan Anek. Gehiegi ez haserretzearren inguruko paisaia aztertzen hasi nintzen. Auzune lasaia zirudien, trafikoko gutxi baitzegoen eta, bazterretan aparkatuta zeuden todoterrenoek salatzen zuten, aberatsa ere bai. Harrigarriena aireportutik harako bidean ikusi genuen herri bizia ez zela inon ageri. Non zen trafikoa, jende oldea, zarata, argiak eta keak? Non munduko hiri populatuenerako biztanleak? Gauza garbi bat bada behintzat, Mexikon zein Kontxintxinan, diruak dena erosten duela dena estaltzeko.

Berehala iritsi ginen euskal etxera. Hitzordurako bi ordu geneuzkanez bertan atsedean hartu eta zerbait jateko profitatu genuen. Zerbitzaria berehala hurbildu zitzaigun eta oraingoan behintzat zerbitzaria zerbitzaria zen, ez beste ezer. Gure herriko azokan barazkiak saltzen aritzen den Joxeparen antz izugarria zeukan. Haragitan pixka bat sartua, suabe esatearren, ile zuria motots batean bildua eta noizbait berria izan zen mantala soinean.

—Qué desea esta linda parejita? —Eskuak mantalean lehortzen zituela.

—Epa, Sácanos dos cervezas y algo para comer. —Nire erdararen doinua entzun orduko eguna alaitu zitzaizola zin egingo nuke.

—Pero bueno, si son vascos! Y qué hacen acá en México, de viaje de novios? —Nirekin hitz egiten ari zen arren Aneri egin zion begi keinua.

—No precisamente —Anek hartu zuen hitza—. Venimos a visitar a un amigo que lleva tiempo sin poder volver a Euskal Herria, ya sabes... por cuestiones políticas.

Cuestiones políticas entzun zuenerako, emakumeak bizkarra eman eta marmar batean sukaldara abiatu zen besoak astinduz.

—Horiek beheko jangelan egon ohi dira.

Biok batera burua okertu eta atzeko mahaian ordura arte ohartu ez ginen gizon bat ikusi genuen egunkaria irakurtzen.

—Gaur ere bertan dira. —Egunkaritik burua altxa eta mostradorearen bukaeran zeuden eskailera batzuk erakutsi zizkigun. Eskerrak eman eta zuzenean abiatu ginen beheko solairura.

Beheko solairua goikoaren aldean txikia zen, leihorik gabea baina mahaiz muku. Goiko jangela publikoa zen bezala, behekoa pribatua zen, hots, elkarte bat. Haietako mahai bakarra zegoen hartua. Lau gizonezko zeuden ardo botila baten inguruan kartetan jolasten, musean hain zuzen. Berehala zuzendu ginen beraiengana.

—Aupa, zer moduz?

Lau gizonak izoztuta gelditu ziren guri begira. Ez zuten aurpegiko muskulurik mugitzen. Arnasa hartzen ote ziren ere zalantzan jarria nengoen. Beraien erreakzioa, bisita gutxi izateari egotzi nion hasieran, baina berehala ohartu nintzen bestelakoa zela haien mesfidantzaren zioa, beti atezu dagoenaren mesfidantza. Geure buruak aurkeztu ondoren, ordea, giroa lasaitu eta beraiekin esertzeko gonbit egin ziguten.

Hemengoaz eta hangoaz hitz egin genuen. Athletic eta Errealaz, Irujo zein Olaizolaz, lehengo parranden naturaltasunaz eta oraingo ez hain naturalena, Euskal Herriaren aldaketez, aldaketa paisajistiko zein politikoaz, herria mobilizatzeko zailtasunez, mila eta bat kontuez mintzo ginen. Behin hasierako isilunea hautsita, txanda eskatu beharra zegoen hitza hartzeko, ordu erdia besterik ez elkar ezagutu genuela eta betiko lagunak ginela zirudien. Neroni behintzat harri eta zur nengoen, ez hain denbora gutxian lortu genuen konfiantzagatik, mintzagaia dena delakoa izanik, guk baino hobeki ezagutzen zutelako baizik. Euskal Herritik kanpo gu bizi ginela zirudien, hain zeuden eta hango berrien jakitun. Halako batean baina, Beltzaren izena mahai gaineratu zuenean Anek, lipar batez itzal bat ezarri zela gure buru gainean iruditu zitzaidan. Lipar txikia izan zen baina esanahi handikoa. Ezer entzun ez balute bezala jarraitu zuten hitz egiten, baina handik aurrerako tertulia behartuagoa zela nabarmena zen, ahalik eta emakume zerbitzaria beheko jangelan azaldu arte.

—Arriba esperan a la parejita.

Laukotea agurtu eta berriz azalduko ginela zin eginez abiatu ginen goiko solairura.

Gure harridurarako Txalupa jatetxeko morroskoa genuen zain. Irribarre batez agurtu eta bere atzetik abiatzeko agindu zigun. Ardiak hiltegiara lez, men egin eta zintzo-zintzo jarraitu genion atarian zegoen todoterreno beltz baterantz. Telebistako serie amerikanotan CIAko agenteek erabiltzen dituzten bezalako autoa zen. Auto bat baino tanke bat dirudien horietakoa. Ane lasai ikusten nuenez, neronek ere neure burua lasaitzera behartu nuen, autoan sartu eta bidean jarri ginen. Zehazki nora gindoazen arrastorik jakin gabe.

Ordu erdiko bidea egin ondoren, hesiz inguratutako etxe batera iritsi ginen.

Etxe hau ere pelikuletakoa. Etxea baino jauregi bat zen, eta bere inguruan zegoen lorategia, berriz, dena jendez betea, gure herriko parkea halako bi izango zen gutxienez. Txundigarria benetan. Kaleko atea zaintzen hiru

gizonezko, hirurak armaturik. Lorategiaren bazter batean musika talde bat bere tresnak prestatzen eta taldekideen itxurari erreparatuz, ziurrenik mariatxiak. Etxearen aurrealdeko igerilekuan lau emakume biluzik, eta lorategi osoan zehar beste hainbat emakume erdi biluzik, guztiak xanpain kopa eskuan. Inguruan zeuden gizonezko guztiak, aldiz, trajea jantzita, ziurrenik armak ezkutatzearren. Harritua egoteaz gain, erabat jokoz kanpo nengoen. Zer demontre egiten genuen han? Okerreko pertsona batengana eraman ote gintuzten? Zer zerikusi zuen guzti hark euskal iheslari batekin?

Galderei erantzuna topatzeko astirik gabe, etxe barrura gonbidatu gintuzten. Hemen bai nire harridurak goia jo zuela, ez atzematen zen luxuagatik, ongietorria ematera euskal etxean gure gibelean eserita zegoen gizona azaldu zitzaigulako baizik. Bere burua aurkeztu eta to! Beltza bera! Ane eta bion aurpegia ikusita barregura sartu zitzaion, hor nonbait, bi pinguino ikusiko zituen basamortuaren erdian.

Euskal etxeko gertaeraz ez gehiegi kezkatzeko esan zigun, halako jokaerak ohikoak baitziren iheslarien artean. Hala ere, Mexikon tentuz ibiltzeko beharraz ohartarazi zigun, bertan aurki genezakeen arriskuen zerrenda amaigabea luzatuz. Gu ikaratzeko helburua bazuen, nirekin behintzat lortu zuen, ezin ordea berdina esan Anez. Honek Beltzaren hitz bakoitzari irribarre batekin erantzuten zion, eta ez maleziatsua preseski. Berehala elkar ulertu zuten biek. Soberan nintzela sumatuz, zokomiran hasi nintzen bazterretan.

Etxe barnean ere jende ugari zegoen, eta lorategian bezala emakumeak erdi biluzik eta gizonezkoak trajea jantzita. Zalantzarik ez zegoen emakumeak emagalduek zirela eta gizonezko gehienak segurtasunekoak, baina zer eta nor izango ote ziren gainontzekoak?

Halako batean, bazter batean zegoen mahai batek bereganatu zuen nire arreta. Mahai osoa hauts zuriz betea zegoen! Eta hara non, Beltza eta Ane bertaratzen ikusi nituen. Nire ezusterako, Anek burua makurtu eta sudurra astintzeari ekin zion, Beltzaren eskuak Aneren ipurmasailean pausatzen zirelarik. Harri eta zur nengoen, are gehiago sudurra oraindik zuritua, Anek niri begiratu eta bere irribarre puta hori eskaini zidanean.

Korrika batean irten nintzen lorategira. Bertatik alde egin beharra sentitzen nuen, eta fisikoki ezin bazen mentalki izan zedila. Xanpain botila bat eskuratu eta musikariengana hurbiltzea erabaki nuen. Lehen begiratuan mariatxiak zirela uste banuen ere, oker nenbilen, beraien burua aurkeztu zutenean garbi samar gelditu baitzen. *El grupo Exterminador*. To izen berezia! Ederra benetan. Are ederragoak oraindik beraien letrak. *Me anda buscando la ley... por traficante de drogas!* Hura tumatxa zuan, narko-korridoak zuzenean!

Bizpahiru abesti entzun ondoren eta botila erdia jiratuta, esku bat pausatu zen nire sorbaldan. Ezustekoak ia lurrera bota ninduen, baina ez nintzen lurrera eroriko, ez horixe, bi metroko mamutzarrak ederki heldu baininduen.

—Rey Fonseca quiere verle.

Ziurrenik edandako txanpan guztiaren ondorioz, zetorkidan arriskuaren aurrean ezaxola, morroskoari men egin nion. Hala ere, mamutzarrak ez zuen bere eskua nire sorbaldatik askatu, eta trapu zaharra nola, hala eraman ninduen Rey Fonsecaengana.

Lorategi osoa zeharkatu, etxe barnera sartu eta zuzenean lehen solairuan zegoen ate baten aurrean pausatu ninduen. Atea jo eta nire aldamenetik desagertu zen.

—PASE!

Ahots ikaragarri lehor batek garrasi egin zuen gela barnetik, ahots horditu batek. Zalantzak izan nituen sartu edo ez, baina inora joaterik ez nuenez sartzea besterik ez nuen. Atea ireki eta aho bete hortz gelditu nintzen begi aurrean nuen ikuskizunarekin. Ohe gainean tente, buruan bakero kapela, sabelean elkar gurutzatuz sorbaldeetatik erortzen zitzaizkion kartutxerak, esku bakoitzean pistola bana, narru bizitan eta zakila zut, Pantxo Villaren imitazio argal bezain kaskar bat zegoen. Ezer ulertzeko beta eman gabe, sabaira tiro eginez oihuka hasi zitzaidan.

—DESNÚDATE, PENDEJO!!